

AGENDA @ Irrati-Telebista

ekografiak @ FERMIN ETXEGOIEIN

Orratzak

Entzierroa oraintxe bukatu da. Zortziak eta bost dira, astelehen hasiera honetan. Sanfermin egunek sakontasuna hartzen duten une horretantxe gaude. Asteburua pasatu da, baina lau egun gelditzen dira aurretik. Erdian gaude beraz. Iraganak eta etorkizunak pixu berbera baleukate legez une honetan.

Orain arte ez bezala: hasierako egunetan, jaiak ez du erakutsi irteera-atea. Horregatik, denborari aurrea hartzen ahal zaio hasierako egun horietan. San Fermin jaietan zoro dibilena zertan dabil, bada, bere iragana zeharo baztertuta «etorkizun tantak» edan nahian baizik?

Zer da entzierroa bestela?

Ihes egitea aurreraka. Nire moduko zutabegileoi, nago, zenbait alderaketa egitea zilegi zaigun bezala.

Tira, hemendik aurrera ere gertatuko da: *zerbait* gertatuko zaigulakoan joan izan gara Sanferminetara beste inora ez bezala. Zoriaren inguruko amets kolektibo erraldoia da Iruña.

Baina bukaera sumatuz gero lagunok... berdin dio jai-girorik alaitsuenean ibiltzeak ere, barkatuko didazue. Oroimina ageri ohi da aidean nahitaez. Sanferminak eta malenkonia biak batera uztarturik, bai, ez nabil ezer asmatzen. Bien arteak sorturiko pasodoble ederrak aspaldi erakutsi zuen bezala («Ez zaitez Nafarroatik joan, *flamencona*»).

Orain Sanferminetako erdi-erdian gaude beraz, eta dasta ditzagun une berezi hauek. Une labur hauetan iragana eta etorkizuna paretsu baitaude, eta ondorioz denborak geldirik dagoela dirudi. Norabidez aldatu aurretik, guztiz gelditu beharra baitago instant batez.

Goizeko zortziak izateko bost minutu falta dira. Ohetik jaiki berria dirudi zezenak eta logelatik irteteko zorian dago. Ohean emakume ederra dago etzanda. Izaren artean titi-bistan ageri da. Sexu-jolasaren osteko zigaretari atxikia. Zezenak diotso emakumeari: «Zortziak dira. Zure senarra zain daukat. Banoa, ea harrapatzen dudana».

Arestikoa, Kukuxumuxu enpresaren telebista iragarkia duzue (TVEK goizero hainbat aldiz emititzen duena). Une jakin batean hasi zen mundua ere.

HERBEHEREAK

Hausnarketarako bideoak kalean, hirigintza plan bati erantzunez

OpTV telebista alternatiboa jarri dute martxan Hagan Klas Van Gorkumek eta Iratxe Jaiok

URTZI URKIZU

Telebista kate gehienak udan entretenimendu saio txolinak eta errepikapenak ematen ari diren bitartean, telebistari beste erabiler bat emateko modua aurkitu dute Herbeheretako Haga hirian. Iratxe Jaiok (Markina, 1976) eta Klaas van Gorkum (Delft, 1975) bidegileek OpTV izeneko proiektua jarri dute martxan, eta eraikin batean jarritako pantailan artisten bideoak, propaganda filmak, bigarren eskuko dendetan aurkitutako bideoak eta Transvaal auzoko herritarrek eginiko lanak emango dituzte. Eraikuntza bota arte — abenduak 31 — egunero emitituko dituzte bideoak, eta auzoko eguneroko bizitzako irudiak ere grabatu eta jarriko dituzte.

Auzo baten eraldatze behartuaren lekuko

Transvaal, Hagako udalaren hirigintza planaren ondorioz, aldatuta sakonak jasaten ari den langile auzo zahar bat da. 3.000 etxe botatzeko asmoa du udalak, haien ordez garestiago erosgai ipiniko diren 1.600 etxe egin ahal izateko. Zaharberritzea aurrera eramateko, bizilagun askok auzotik alde egin beharko dute, etxeak hutsik utziz. Tesuinguru horretan sortu da OpTrek mugimendua, erazupenak egiten diren heinean auzoan arte proiektuak antolatzen dituen taldea. Eta OpTrek-en bulegoaren aurrealdean jarri dute Michiel Voet eta Jeroen Miche-



URTE AMAIERAN botako duten eraikin batean jarri dute OpTVko pantaila.



ARTISTEN bideoak dira nagusi OpTVko programazioan. OPTV



HAGAKO Transvaal langile auzoa da OpTVren kokagunea. OPTV

roux artistek diseinatutako egitura, OpTV telebistaren pantailarekin.

Auzoaren transformazio prozesuak irauten duen sei hilabeteetan zehar, segurtasunak, kontrolak, kultura desberdinen arteko lehiak eta hirigintza planak auzokideentzat zer ondorio izango dituen aztertuko ditu telebista proiektu berritzaileak. «Horrez gain, OpTVk bere funtzio eta instrumentazioari buruzko hausnarketa egin nahi du, aldi berean jarrera kritikoa eta independente bat mantenduz», dio Iratxe Jaiok.

Proiektuaren funtsa inaugurazio egunean ere islaturik gelditu zela azaldu dute arduradunek. Mikrofono bat ireki eta herritarrek zabalduzako mezuak OpTVn zuzenean eman zituzten. Egunkari eta filmetatik hartutako 200 irudi bereizgarri aukeratu zituzten. Auzokide batek hiri berrikuntzen aurkako manifestu bat irakurri zuen. Eta hainbat lagunek mugimendurekin elkarlanerako borondatea erakutsi zuten.

Egindako lana zabaltzeko asmoa

Op TV proiektua berezia da oso, bukaera epea duen neurrian. Baina egindako lanak fruitu berriak eman ditzazke etorkizuneari. «Adibide hau beste leku batzuetan erabiltzea nahi gentuke, eta politika urbanistikoaren gaineko hausnarketarako baliagarria izatea», dio Iratxe Jaiok. Biltutako bideo eta lanak Transvaal auzotik kanpo erabiltzea gustatuko litzaieke OpTVko arduradunei. Gainera, uda honetan Bilboko auzoetan telebista agertoki batzuk muntatuko dituzte. Bilboarteren laguntzarekin ikus-entzunezko hainbat proiektu sortzeko asmoa dute Van Gorkumek eta Jaiok.

EITB

PSE-EE alderdiak Andoni Ortuzar EITBko zuzendaria kargutik kentzeko eskatuko du

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

EITBko zuzendaria aldatzea eskatuko legegintzaldi berriari PSE-EE alderdiak. Sei urte dira Andoni Ortuzar EITBko zuzendari nagusi izendatu zutenetik. 1999. urtean EAJ, EA, EB eta EHko botuekin hautatu zuten Ortuzar, eta 2001eko legebiltzarreko hauteskundeetan ondorengo karguan jarraitu zuen. 1996an onartutako Erakundearen Legearen aldaketaren arabera, EITBko zuzendaria soilik Eusko Jaur-laritzak edo administrazio kontseiluan ken dezake kargutik, baina zuzendari bera mantentzeko legeak ez du behar-tzen kargua behin-behinean uztera. PSE-EE alderdiak Andoni Ortuzar kargutik kentzea eskatuko dio Eusko Jaur-laritzari, eta legebiltzarrek hautatu dezala zuzendari berria. Legearen arabera, EITBko zuzendari nagusia Eusko Legebiltzarrek aukeratu behar du, gehiengo osoz.

«Pluralismoa» bermatzea nahi du PSE-EEK

PSE-EEK ordezkariak adierazi dute EITBren administrazio kontseilua eta zuzendaria hautaketa legebiltzarreko ekintzen lehenatasunen artean egongo dela. Jose Antonio Pastor PSE-EEKo bozeramaileak adierazi du EITBko zuzendaria alderdi bateko kidea izatea eragotzi nahi dutela. PSE-EEK proposatu du Eusko Jaur-laritzari eta oposizio alderdiek zuzendari berria ados dezatela, eta pertsona horrek «pluralismo informetibo eta albeste tratuaren inpartzialitatea» bermatu dezala.